



## Matxitxakoko itsasargia (Bermeo)

Gauean, gizakiaren eta itsasoaren arteko borroka etengabe, nabigatzaileen arriskuak gehitzen dira. Kosta ezagutzea zaila izango litzateke, itsasargiek, kostetako dorre goreak eta irismen luzeko argiak dituzten portuek itsasturiei lagunduko ez baliete. Izan ere, tripulazioko kideak, hura ikusten dutenean, nabigazio-kartan non diren ohar daitezke eta itsasertzeko gunerik arriskutsuenak zehaztu ahal dituzte. Horrela, norabidea zuzendu ahal dute, bera zuzentzea beharrezkoa izanez gero, eta porturako edo aterpe erosorako sarrera eraginkortasunez markatu.

Itsasoko seinaleon jatorriari eta lehengo garapenari buruzko aipu gutxi daude. Logikoa denez, uste izatekoa da gizon haiek beren ohiko ainguralekueetatik urrun nabigatzera ausartu zirenetikoak direla. Kosta ezaguna ikusten ez baitzuten, beren gaueko orientazioa errazteko neurriak hartu beharrean egon ziren. Heldu zioten lehenengo irtenbidea harkaitzetan egundoko sutzarrak piztea izan zen.

*Faro* izena Alexandriako portura sartzekotan zirela adierazteko Pharos uhartean Ptolomeo II.aren erregealdian (J.K.a. 285-247) eraiki zuten dorre famatutik dator.

Bermeok hiru itsasargi izan ditu; eta ez gaitu harritu behar horrelako instalazioak ugaritzeak, kontutan hartzen badugu ezen Bizkaiko itsasoaren indarkeriak, alde honetako ekaitzen suminak, untxi asko hondoratu dituela. Oso txar eta tragikotzat hartu ahal dira 1878ko Larunbat Santuko eguerdian jazotako jazoerak: hurakan bortitzak 14 batel eta 3 txalupa hondorarazi zituen eta Bermeoko 85 itsasgizon ito ziren. Gogoratzeko beste data bat 1912ko abuztuaren 12tik 13rako zorigaitzoko gaua da: enbataren ondorioz, 116 bermeotar hil ziren.

**Erosapeko itsasargia** (1912) Lamiar puntaren mendebaldean dago (43° 25'N, 2° 43'W). Seinale horrek Bermeoko porturatzea erraztea eta Uragarri harkaitzaren eta kai-muturraren artean behealdeak balizatzea du eginkizun. Lurraren gaineko goiera 4 metrokoa da; eta itsasoaren batezbesteko mailaren gainekoa, 38 metrokoa. Argi zuri eta gorriaren itxura du, 6 segunduoroko bi ezkutaldiko taldetan; bederatzi miliako ikuspenna du.

**Matxitxako** izena duten bietatik jatorrizkoa, zutik dorrea bakarrik duena, 1852ko abuztuaren 21ean inauguratu zen. Obren aparejadorea Juan Martinez Aparizio, eta garai hartan 132.531 errealeko kostatu zen dorrea, Durangaldeko harrobietatik etorritako harri landukoa, eta 233.796 errealeko aparatuko optikoa. Hura Matxitxako lurmuturraren puntarik irtenenean dago (3° 22'50" E-ko luzera eta 43° 28'0" N-ko latitudea). Beraren proiektzio optikoari eta geometrikoari jarraiki, itsasargia lehen mailakoa zen, orduko irismenik handiena, 23 miliakoa. Argi mota finko zuria zen, 4 segunduro distirak ateratzen zituena. Argizko fokua garaiera, itsasoaren mailaren gainekoa, 79,42 metrokoa da; eta konikoa den dorrearen plantaren gainekoa, 12,70 metrokoa. Hiru dorrezain zituen eta 1909ko abendura arte jardunean egon zen. Dorre zahar hori laino-adar bezala aprobetxatu da.

Hegoaldetik 110 metrora dago **Matxitxakoko egungo itsasargia** (43° 27'N 2° 46'W). Berau ere lehenen mailakoa da. 1909an inauguratu zen. Rafael de La Cerda ingeniari ospetsuaren lana izan zen. Eraikinak, dorrezainen etxea, biltegia eta tresna-gordetegia denak, planta angeluzuzena du eta bi solairuko erdiko gorputzak eta oin bakarreko alboko bik osatuta dago. Fatxada nagusiak leihoburu antzeko baoetako zazpi ardatzetan antolatuta dago. Sarrera nagusia erdi-puntuko arkukoa da. Era berean, solairuak eta baoak molduren bitartez azpimarraturik daude, kalostraz errematurik daudela. NW-ko muturrean harri-hormakoa den dorre prismatiko oktagonala dago, burdinurtu ijertziko kupula ederra duena, elementu optikoa barnean duena.

7 segunduoro agertzen da distira zuria, eta irismena 35 miliakoa da. Foku-planoa itsasoaren mailaren gainean 122 metrora jarrita dago, eta lurraren gainean 20,6 metrora. Argiak Castro Urdialesen eta Deba ibaiaren arteko aldea irradiatzen du. Eraikinetik bertatik irrati-itsasargia emititzen du Cabo Mayorreko eta Cap Ferret-ekoekin batera. Hark 100 miliako irismena du. Eguraldiak hala eskatzen duenean, laino-sirena ateratzen du hark. Itsasargi-eskola bezala balio izan zuen.

**Testua:** Maite Ibáñez.



**Matxitxako, itsasargi dotorea! meteor mirarizkoa, ederra eta maitea! urrezko uztaiako bakartia! argi emankorra, goiztiriko argien harmonia! Matxitxako, Bizkaiko kostako jagolea; lorraz argia, itsasoak argizatzen dituena; trumoia gabeko tximistargia; argi-dirdai osoa eder eta bitxia! Agur, Itsasargia!!**

(Julio Fernández Varo, 1924)



**Matxitxakoko itsasargia**  
Bermeo. (Matxitxako lurmuturra).

### Nola heldu:

Bermeotik Bakiorako errepidean, Altamira-Gibale auzoa pasatu eta Arribolako hondartzaranzko eskuineko lehenengo saihesbidea hartu behar da. Matxitxakoko itsasargia finkatuta dagoen harkaitza gurutzagunetik kilometro 1 eta 800 metrora dago.

### Bisituen ordutegia:

Ezin da barrualdea bisitatu.

### Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Bermeo)

- Andre Maria eliza.
- Udaletxea.
- Ertzila dorrea.
- Santa Eufemia eliza.
- Batzokia.
- San Frantzisko komentua eta klaustroa.
- Ormaza fabrika.
- Ertzila dorrea.
- Gaztelugatxeko San Juan basiliza.